

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## 2. MAILA

### Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

\*\*\*\*\*

#### Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumen-proba amaitu ondoren, **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
<b>Azterketa idatzia</b>	Irakurmena	10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min inguru
	Irakurmena eta idazmena	28	50 puntu	<b>1 h 45 min</b>
	Entzumena	10	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2009ko maiatza**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



### 1. TESTUA

Ondoren, aditu batek **Vicks Vaporous izeneko sendagaiaz** hitz egingo du Euskadi Irratiko saio batean.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. *Nola etortzen zaizkigu eztula, eztarriko mina, ondoeza...?*
- Sasoi onean ez gaudelako sortzen dira.*
  - Neguko hotzarengatik etortzen zaizkigu.*
  - Urrutiko senideak bezala, bisitan.*
1. Zer dio gripeaz esaera herrikoi batek?
- Gripeak berdin irauten duela botikak hartu ala ez hartu.
  - Sendagairik ez hartzea dela gripea sendatzeko modurik onena.
  - Sendagaiak hartuta, lehenago sendatzen dela gripea.
2. Zer dio medikuntza-ikerketak batek Vicks Vaporous sendagaiari buruz?
- Osasun-arazoak eragin ditzakeela, bi urtez gorako haurren kasuan.
  - Bi urtez beherako haurren osasuna kaltetu dezakeela.
  - Bi urteko haurren osasunean eraginik ez duela.
3. Zer gertatzen da sendagai hori hartuz gero?
- Mukiak desagerrarazten dituela eta arnasa hartzen laguntzen duela.
  - Hasieran bestela iruditu arren, gero muki gehiago eragiten dituela.
  - Mendak arnasbideetan arazorik ez duela eragiten.
4. Ikerketak zer izan du aztergai?
- Sendagaiaren osagaiak.
  - Sendagaiaren kalitatea.
  - Sendagaiaren ondorioak.
5. Zer dio medikuak berri horri buruz?
- Lehendik ere gauza jakina zela, fitxan jartzen zuela.
  - Jendeak hala egiten zuela orain arte ere, bazekielako.
  - Inork ez zuela espero horrelako ondoriorik aurkitzea.
6. Zer dio sendagaia erabiltzeko moduari buruz?
- Botika era batera edo bestera erabiltzeak eragin handia duela sendatzeko orduan.
  - Botika modu batera edo bestera erabilia ere, eraginkortasuna antzekoa izaten dela.
  - Lurrinak eginez gero, arinago sendatuko garela ukendua sudur-zuloetan jarrita baino.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

0. - c	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
--------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

### 2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko saio batean, **Bizkaivinos** ardo-erakusketa dela-eta, Xabier Larrazabal kazetariari egindako elkarrizketa entzungo duzu.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. *Non egin zen Bizkaivinos erakusketa?*
  - a. *Arriaga Antzokian.*
  - b. *Ertzila hotelean.*
  - c. *Euskalduna Jauregian.*
1. Zenbat aldiz egin da *Bizkaivinos* erakusketa?
  - a. Aurten lehen aldiz egin da erakusketa.
  - b. Aurtengoarekin hamaika aldiz egin da erakusketa.
  - c. Aurten bigarren edizioa egin da.
2. Nolako bisitariak bertaratu ziren erakusketara?
  - a. Ostalari profesionalak eta kaleko jendea.
  - b. Profesionalak eta munduko ostalariak.
  - c. Herritarrak, ostalariak eta profesionalak.
3. Zer egiteko aukera izan zuten bisitariak?
  - a. Egun osoan zehar munduko ardo ezberdinak dastatzekoa.
  - b. Goiz osoan munduko ardo ezberdinak 10 €-an erostekoa.
  - c. Eguerdian hasita, munduko ardo ezberdinak dastatzekoa.
4. Zenbat jatorri-izendapen zeuden ordezkatuta erakusketan?
  - a. Hogeita sei jatorri-izendapen.
  - b. Ehun jatorri-izendapen.
  - c. Bi mila eta bostehun jatorri-izendapen.
5. Zer da Itsasmendi upategia?
  - a. Bizkaiko txakolindegien ordezkaritza duen upategia.
  - b. Soilik Bizkaiko txakolina eskaintzen duen upategia.
  - c. Bizkaiko txakolina eta bestelakoak ere eskaintzen dituen upategia.
6. Zein zen Itsasmendikoen helburu nagusia?
  - a. Katalogo guztia saltzea.
  - b. Beren ardoak probatzera ematea.
  - c. Kanean saltzeari uztea.
7. Zerk piztu zuen jendearen jakin-mina erakusketan?
  - a. Ohiko jatorria duten ardoek.
  - b. Mundu zabaletik etorritako ardoek.
  - c. Maiz probatzen diren ardoek.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

<b>0.- c</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>	<b>7.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

### 3. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian **Andoni Egañaren** iritzi-zutabea entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. Noiz ikusi zuen kontalariak eskalea?

a. Herenegun goizean.

b. Atzo goizean.

c. Gaur goizean.

1. Zergatik esaten du eskalea "begiz jo" zuela?

a. Argi eta garbi ikusi zuelako.

b. Begiak nahi gabe joan zitzaizkiolako.

c. Beste norabait begira ari zelako.

2. Nola zegoen eskalea jarrita?

a. Lurrean eserita eta eskuak lurrean tinko.

b. Besoak gorantz jarrita eta ukondoak airean.

c. Lurrean belaunikatua eta eskuak zabalik.

3. Nola zeukan une horretan burua?

a. Burua amildua zuen.

b. Burua tente zuen.

c. Burua eskuen artean umildua.

4. Noiz ikusi zuen eskalea?

a. Goizean zehar, eguerdia arte.

b. Egun osoan zehar, hainbat aldiz.

c. Atzo eguerdian, semaforoa igarotzerakoan.

5. Zer zirudien eskaleak?

a. Otoitz egitera deitzen ari zen norbait.

b. Otoitz egiten ari zen norbait.

c. Erlojuari begira ari zen txirrindularia.

6. Zer sentitzen du kontalariak eskalea horrela ikusita?

a. Harridura besterik ez zuen sentitu.

b. Pena besterik ez zuen sentitu.

c. Hainbat sentipen izan zituen.

7. Zergatik da berezia eskalea kontalariarentzat?

a. Eskaleak postura horretan egunero egoteko duen gaitasunagatik.

b. Eskale askok postura horretan egoteko duten gaitasunagatik.

c. Eskaleak postura horretan luze egoteko duen gaitasunagatik.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

### IRAKURMENA

#### 1. TESTUA

**Pedro Ramosek** *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian idatzitako artikulua bat irakurriko duzu.

### *Slow food* mugimendua

Dudarik gabe, osasuna da *Slow food* mugimenduaren onurarik handiena jasoko duena. Izan ere, elikagai eta abereen hazkuntza iraunkorra bultzatzen du, hau da, modu tradizionala. Ondorioz, elikagai hobeak izango ditugu eta horrek, noski, osasun hobea eta gaixotasunei aurre egitea dakar. Mugimendu honek mundu zabaleko janarien uniformetasuna galarazi eta lekuan lekukoari eman nahi dio bultzada, "janari azkarraren" kontra.

Elikagaiak nekazaritza iraunkorraren emaitzak dira, abere hazkuntza tradizioaletik datoz, arrantza ez-traumatiko batetik eta, bistan da, haien usain, gustu eta osaketa ere hobeak izango direla. Elikagai naturalek, bestalde, proteina gehiago dituzte, ur gutxiago, koipe saturatu gutxiago, eta balio handiagoa bitamina eta mineraletan. Beraz, uste dugu gaixotasun kardiobaskular gutxiago izango direla, minbizi mota jakin batzuetako kasu gutxiago. Gainera, gainkarga eta obesitatea hobeto kontrolatzen laguntzen dute.

Egia da gaur egun oraindik, *Slow food* mugimendua ez dela osasun-plangintzetara iritsi, jende gutxi duelako horren berri. Mugimendua indartuz gero, jateko ohitura osasungarriak hedatuko direlakoan nago; besterik ez bada ere, janari azkarraren, elikagaien globalizazioaren eta gustuen zapora uniformetasunaren kontra dagoelako. Horiek, azken finean, multinazional bakan batzuen esku daude.

Nire iritziz, filosofia modu hau zabaltzea komeni da. Esaerak honelaxe dio: "Hobe da oinez eta segurua, eta ez azkar eta zultura". Azkar jarduteak ez digu elikagaiak dastatzen uzten, eta horixe da janariak duen plazerik handiena! Presaka aritzeak azkarrago jatera behartzen gaitu, nekezago asetzen gara eta behar baino kaloria gehiago hartzen ditugu. Ez dago kolorerik! Bizitza honetan, gauza guztiak, presarik gabe, baina etenik gabe.

#### **Pedro Ramos**

UPV-EHUko Farmazia fakultateko irakaslea  
(Moldatua)

# HADE

## 1. egitekoa

Hiru **laburpen** hauetatik (A, B, C) zein da **testuaren edukia** ongien jasotzen duena. Idatzi **letra** beheko laukian.

A *Slow food* mugimenduak gero eta abantaila gehiago eskaintzen ditu osasun-plangintza orokorretan. Nekazaritza tradizionalaren onurak enpresa multinazionalak hedatu dira, ohitura onak kontuan izan direlako.

Idazlearen iritziz, lasai jatea, atseginagoa izateaz gain, edozeinek bere kabuz eta erraz egin dezake eta biderik seguruenak da.

B *Slow food* mugimenduak janari naturalak hobeak direla jakinda ere, ezinezkoa ikusten du osasun-plangintza orokorretara iristea. Izan ere, zailtasunik handiena nekazaritza tradizionalaren muga delako, ez baita iristen enpresa multinazionalen neurrietara.

Idazlearen iritziz, patxadaz jateak, gehiago janarazi bai, baina jateko era osasungarriagoa bultzatzen du.

C *Slow food* mugimenduak elikagai hobeak lortu nahi ditu, nekazaritza tradizionala bultzatuz. Joera hori osasun-plangintza orokorretara iritsi ez bada ere, hedatzeko aukera ikusten dio, enpresa multinazionalen zapora-uniformetasunaren kontra egon arren.

Idazlearen iritziz, komeni da gauzak patxadaz egitea. Jan ere hobeto jaten da horrela.

Testuaren **edukia ongien laburtzen** duen zatia

da.

## 2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren **3** azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu.

Idatzi hitza laukian, adibidean egiten den bezala.

### Adibidea:

#### 0. (1. paragrafoan)

*Bizitzeko behar den gaia.*

elikagaia

#### 1. (3. paragrafoan)

Usadioa, zerbait askotan errepikatzean sortzen dena.

#### 2. (4. paragrafoan)

Zentzumen baten bidez zerbaitez gozatu.

#### 3. (4. paragrafoan)

Gosea edo egarria berdindu arte jan edo edan.

## 2. TESTUA

Jarraian **Andoni Imazek Berria egunkarian** argitaratutako artikulua irakurriko duzu. Bertan futbolearen sortzen den indarkeriaz iritzia ematen du.

### Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako esaldiak. Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

## Biolentzia



ANDONI IMAZ

Joan den asteburuan Langreo-Oviedo Hirugarren Mailako partidaren, harmailetan, jendartean sortutako eztabaida bat labankada batzuekin amaitu zen. «Eta zer?» pentsa dezakezue batek baino gehiagok. Horrelakoak eta krudelagoak egunero gertatzen dira.       0=i      , baizik eta bonbaz eta gosez, zerbait esatearren.

Baina kontua zera da: norbait futbol partida bat ikusteko asmoarekin irteten dela etxetik, hamar urteko semea ondoan duela, ogitarteko eta guzti. Kafea eta kopatxo bat,       1      , eta eserlekura, taldea animatzera. Bi talde zelairatu, beno, lehenik kanpokoak izaten dira, eta horiek batzuek txaloz hartzen dituzte eta besteek txistu eginez. Semeak galdetzen dio aitari ea zergatik txistuak, eta berak: «Aurkariak eroso ez sentitzeko!» edo «Isilik, eta txistu egin!», izan daitezke erantzun bi errazenak. Ondoren, etxeok irteten dira, horiei txalo bero-beroak. Azkenak arbitro jaunak izaten dira eta horiei bai, horiei denek batera txistu eta biraoak.       2      . Partida aurrera doala, zaletuak sutzen doaz, jokalariei zein arbitroari esandakoak harmailetara iristen dira eta,       3      , labana atera, beste taldeko zaleturen bat zulatu eta akabo, «seme, goazen hemendik».

Nire irakasle batek zioen automobila gidatzeko karneta eskatzen dela, baina aita izateko ez.

Zer arraio egiten du halako gizon batek futbol estadio batean? Zertara darama semea? Kirola zer den erakustera?

Kaka zaharra! Horrelako jendeak gabezia handiak dituela badakigu,       4      , euren izaeraren alde ilunenak plazaratzeko. Mutil gizajo horrek ordu arte eskolan eta lagunekin ikasitako guztiak       5      .

Espero dut hurrengo batean       6      , eta hartara konturatuko da zelaian partida hamaika hamaikaren kontra izango dela, legea arbitroak jarriko duela eta bestela txartelek, eta errespetatu egin behar dela, eta mugak laukizuzenak markatuko dituela. Arma bakarra baloia eta trebetasuna izango dira. Priiii!!! eta ea hobe zein den. Hau bai dela justizia eta ez aitak egin zuena.

Bart gertatutakoa NARDAGARRIA da. Batzuetan koloreak, besteetan emaitzak, hurrengoan larruazala, gero ez dakit zer. Aitzakiaren bat behar baduzue, psikologoarengana edo psikiatrarengana jo eta       7      , baina futbola ez erabili.

(Berria, 2003-10-09)



# HADE

## Egitekoa:

Hona hemen testuan tartekatu behar dituzun esaldiak. Lotu zenbakiak esaldiekin, adibidean bezala.

Esaldi bat sobera dago.

- a. bidean lagunekin topo egin, bufanda lepoan
- b. bere aitak eta bere aita bezalako beste hamarrek zapuztu egin dizkiote
- c. baina futbola aitzakia galanta bihurtzen da horientzat
- d. berak esango dizue zer egin
- e. partida ikusten egon beharrean, jolasten arituko dela
- f. hitzek nahikoa iraintzen ez dutenez
- g. mutilak dagoeneko ez du galdetzen eta bere aitak egiten duena errepikatzen du
- h. hobe izaten baita futbola telebistan ikustea
- i. **Ba, bai, telebista piztu eta hildakoak ehunka dira, eta ez labanaz bakarrik**

*Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:*

**0. Adibidea: 0 = i**

<b>Hutsuneak</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
<b>Testu zatiak</b>	<b>i</b>							

## 3. TESTUA

**Doris Lessing** idazlearen nobela baten pasarte bat irakurriko duzu. Hegoafrikan kokatua dago. Mary emakume zuria da, jatorri britainiarrekoa. Morroi natibo bat du etxaldean laguntzeko.

### Egitekoa

Irakurri testua, eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

- Lanera berriz –esan zion.

Afrikako langile guztiek izan ohi duten espresio berarekin begiratu zion morroiak Maryri: begiratu huts bat, emakumea ikusi ere egingo ez balu bezala, mendetasunezko mozorro bat balu bezala **hari** eta haren kastakoei begiratzeko, bere barren ezkutua eta ezin iritsizkoa ondo estalirik. Presarik gabe, besoak luzatu eta atzera jiratu zen. Ura hartzera zihoan, freskurarengatik zuhaitz baten azpian zeukaten petrolio-pote batetik. Maryk berriz esan zuen, zorrotz, boza goratuz:

- Lanera berriz, esan diat.

Morroia gelditu egin zen, begiratu zion Maryri zuzenean eta esan zuen bere dialektoan, Maryk ulertu ez arren:

- Edan egin nahi dut.

- Ez niri **mordoilo** horretan hitzik egin –bota zion Maryk. Ingurura begiratu zuen langileburuaren bila, baina ez zuen ikusi.


- Nik... zera... ura nahi dut –esan zuen morroiak, totalka eta irrigarri.

Ingelesez esan zuen, eta bat-batean irribarre egin zuen, ahoa zabaldu eta behatza barruan sartu zuen, eztarria seinalatuz. Maryk barre txikiak egiten aditu zituen artaburuaren ondoko natiboak. Barre haiek, nahiz eta asmo txarrekoak izan ez, **bere onetik atera** zuten, berari barre egiten ziotela uste izan baitzuen. Baina gizon haiek zerbaiti, edozer gauzari, barre egiteko okasioaren zain egoten ziren, besterik ez; eta beren arteko bat ingeles txarrean hizketan eta behatza ahoan behera sartzen ez zen barrerako okasio txarra.

Zuri gehientzat, ordea, "lotsagabea" da natiboak ingelesez aritzea.

- Ez niri ingelesez egin –esan zuen Maryk, amorruek arnasa eteten ziola, eta isildu egin zen.

Morroiak besaburuak goratu, irribarre egin eta begiak zerura jarrita zegoen, protesta eginez bezala, Maryk lehendabizi bere hizkuntzan egitea eta ondoren Maryrean egitea debekatu ziolako: orduan, nola hitz egin behar zuen? Herabetasunik gabeko lotsagabekeria hark ezin esaneko errabia eragin zion Maryri. Ahoa zabaldu zuen morroiari sekulakoak esateko, baina tutik esan gabe jarraitu zuen. Erresumin iluna ikusi zuen gizonaren begietan, eta –huraxe izan zen azkeneko tantoa– mespretxu jostagarria. Eta Maryk, zer ari zen ohartu ere gabe, zartailua jaso eta aurpegian jo zuen, zartako bihurri gaizto batekin. Zer ari zen ez zekien. Geldi-geldi geratu zen, dardarka; eta ikusi zuenean gizona erdi tontotuta eskua aurpegira eramaten, Maryk txundituta begiratu zion eskuan zeukan zartailuari, bere kabuz mugitu balitz bezala, berak nahi gabe.



(Belarra kantari, Elkar, 2008)

# HADE

## Egitekoa:

### Adibidea:

0. Nola begirutzen dio morroiak Maryri, lanera lehen aldiz bidaltzen duenean?

- a. Ausardiarik gabe.
- b. Harro eta ziur.
- c. Zalantzan zer egin ez dakielako.
- d. Ez dio begirutzen.

1. "Hari" (4. lerroan) esaten duenean, nori egiten dio erreferentzia?

- a. Beltz bati.
- b. Maryri.
- c. Morroiari.
- d. Emakume bati.

2. Nondik edan nahi du ura morroiak?

- a. Zuhaitz ondoko iturritik.
- b. Itzalean dagoen ontzitik.
- c. Zuhaitz ondoko errekatik.
- d. Iturri batetik.

3. Zer da "mordoiloa" (11. lerroan)?

- a. Beltzaren hizkuntza.
- b. Ingelesa.
- c. Inguru nahasia.
- d. Ur zikina.

4. Zer egiten dute morroiaren inguruan dauden beltzek?

- a. Maryri begiratu eta isilik egon.
- b. Ingelesez erantzun emakumeari.
- c. Aukeraz baliatu ongi pasatzeko.
- d. Beren hizkuntzan hitz egin.

5. Zer dela eta ateratzen da Mary "bere onetik" (16. lerroan)?

- a. Beltzen asmo txarrarengatik.
- b. Beltzen barrengatik.
- c. Morroiaren erantzunagatik.
- d. Bero egiten duelako.

6. Morroiak zer esaten dio Maryri, ingelesez ez egiteko esaten dionean?

- a. Barrez hasten da.
- b. Ez dio ezer erantzuten.
- c. Barkamena eskatzen dio.
- d. Bere hizkuntzan hasten da.

7. Zer egiten du Maryk zartailuarekin?

- a. Beltzaren aurpegian jo.
- b. Ez da jotzera ausartzen.
- c. Behin eta berriz jotzen du.
- d. Eskuan jotzea erabakitzen du.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

<b>0.- a</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>	<b>7.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

## IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**200 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).
- Zure idazlana zuzentzean, arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun
  - testu egokia osatu duzun
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun

Euskaltegian aldizkari elektronikoa duzue. Bertan astero gaiak proposatzen dira, ikasleek iritzia eman dezaten. Aste honetako gaia hauxe da:

### **UNIBERTSITATERA JOAN ALA LANBIDE BAT IKASI. ZER GOMENDATUKO ZENUKE?**

Eman zure iritzia.

Gutxienez, **200 hitz** idatzi behar dituzu.

**Iritzia emateko**, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, **ondoko puntu hauek erabil ditzakezu**:


- ✦ Aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak
- ✦ Gaurko ikuspegia eta iraganekoa
- ✦ Gazteen nahiak eta gurasoenak
- ✦ Lan merkatua, enpresen eskaera, krisia...
- ✦ Unibertsitateko formazioa
- ✦ Zure gomendioa baten edo bestearen alde



# HADE

**Zirriborroetarako orria**  
(orri hau ez da zuzenduko)

# HADE



# HADE

EZTABAIDAGUNEA

**UNIBERTSITATERA JOAN ALA LANBIDE BAT IKASI.  
ZER GOMENDATUKO ZENUKE?**

*Idatzi hemen zure iritzia:*

---

---

---

---

5

---

---

---

---

---

---

10

---

---

---

---

---

---

15

---

---

---

---

---

---

20

---

# HADE

---

---

---

---

25 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

30 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

35 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

40 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

45 \_\_\_\_\_



# HADE

---

---

---

---

50 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

55 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

60 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

65 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

70 \_\_\_\_\_

# HADE

# HADE

## BIGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

### BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

<b>Proba idatzia</b> <b>50</b> <b>gutxienez 28</b>	Irakurmena	% 20	gutxienez 10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	% 30	gutxienez 15	30 puntu	60 min inguru
<b>Ahozko proba</b> <b>50</b> <b>gutxienez 27</b>	Entzumena	% 20	gutxienez 10	20 puntu	25 min inguru
	Mintzamena	% 30	gutxienez 15	30 puntu	10 min inguru
<b>GUZTIRA</b>		<b>% 100</b>	<b>gutxienez 55</b>	<b>100 puntu</b>	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu eta 28 eta 27 proba bakoitzean.  
Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea.  
Emitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

#### Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

**IKUSPEGI OROKORRA.** Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

**BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA).** Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

**ZUZENTASUNA.** Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.